para acabar la liga, pudimos mantener el tercer puesto en la general.

En el Campeonato de Gipuzkoa, celebrado en aguas de La Concha, hubo marejada y se tuvo que aplicar todo lo aprendido en la fosa de San Juan y Hondarribi. A mediados de septiembre, con el apoyo del ayuntamiento de Briñas



Alfonso, el patrón, da indicaciones a la tripulación.

(Rioja), organizamos una regata en el río Ebro contra el actual campeón de liga (Zarauz). Ganamos la primera bandera de Briñas y un buen plato de patatas a la riojana acompañado de un rico vino. Coincidiendo ese mismo día, los veteranos tolosarras del Fortuna compitieron en el río Oria en un campeonato de bateles organizado por las distintas sociedades deportivas de Tolosa, consiguiendo la bandera en una final muy reñida.

Como en los últimos años, los remeros de la liga ABE completamos un equipo para remar en la fiesta de remo de Chapela (Pontevedra); una modalidad en la que las tripulaciones son mixtas, compuestas por senior masculino, femenino y veterano. Es una prueba eliminatoria, resultando muy competitiva y divertida.

En la temporada 2020 seguimos manteniendo la base de la tripulación y, con las nuevas incorporaciones, esperamos seguir en los primeros puestos.



Regata en orio, organizada por Zarauzko A.E.



También participamos en las regatas de Angelu.



**KIROLA BABESTEN,
INGURUMENA
ZAITZEN APOYANDO AL
DEPORTE, CUIDANDO
EL MEDIOAMBIENTE**



TXINGUDIKO ZERBITZUAK
SERVICIOS DE TXINGUDI

Fortuna bai zori ona

- Josune Sanz -

Fortuna, patua eta zori ona terminoek esanahi parekoa izatea ez da kasualitatea.

Indibiduo bezala egunero gure beharrak asetzen saiatzen garela ikasi nuen erizaintzan; eta pertsonok beste beharren artean mugimenduaren beharra dugula oinarritzko 14 beharren artean (Virginia Henderson); oinarritzko behar hau asetzeko, kirola egitea aukera ona da, baina daramagun bizimoduak eta beste faktore askok zailtasunak jarri ohi dizkigute mugimenduari eguneko denbora tartea egokitzeko. Gizabanakoa beti beharrak asetzeko gai ez dela ere ikasi nuen erizaintzan, laguntza edo babesa oinarritzkoak omen dira batzuetan; kirola bakarrik egiten dutenak asko badira ere, beste askok taldearen babesa eskertzen dugu, esate baterako.



Tripulación mixta en Tolosa.

Ondorengo hitzek FORTUNA ELKARTEARI zor diodan esker onaren adierazpena izan nahi dute, hala nola, kirola bi talde berezi hauetan babesa emateagatik, laguntzeagatik, eta kirola sustatzeagatik:

Hamar urte igaro dira kirol elkarte honek kirola egitera lagundu zidan lehen alditik. Garai hartan, amatasuna bizi



Tolosan irabazitako banderarekin.

berri, denbora gutxi ateratzen nuen nire egunerokotasunean kirola egiteko. Fortuna Kirol Elkarteak emakume korrikalarien taldeak sortu eta bultzatu zituen urte haietan, Behobia-San Sebastian proban emakumeen parte-hartzea handitzeko asmoz. Ni bezala, emakume asko animatu ginen korrika egitera.

Bultzada horren ondorioz, Gipuzkoako herri askotan sortu ziren emakumeen korrikalari taldeak eta entrenatzaileek emakumeen prestaketa egokia bideratzen zuten; talde honen izaerak oraindik jarraitzen du hainbat herritan. Fortuna KEak izan zuen ondorio honen ardura. Emaitza izugarriak lortu zituzten orokorrean. Nire kasuan, urte haietan korrika proba ugari egin ahal izatea bideratu zuen, horrek eskatzen dituen entrenamendu bideratuak tarteko. Horregatik nire lehen esker ona Fortuna Kirol Elkarteari.

Aurrerago, patuak arraunean aritzeko aukera otu zidan 2014an, nire herrian; orduz geroztik, arrauna ezagutu eta

zaletasuna piztu zait pixkanaka. Baina benetan zori ona izan dut, 2019an Fortunako Beteranoen Arraun Taldean parte hartzeko aukera izan berri dudalako.

Bertan dauden pertsonok, kirola egiteaz gain, taldearen ongizatea sustatzen dute. Taldeko antolaketa izugarria da; arraunlariek konpromisoa erakusten dute entrenamenduen deialdi guztietan; ez da lan erraza baina ez du inork atzera pausurik egiten; batzuk entrenamenduen antolaketaz eta gidaritzaz arduratzen dira, besteak materiala lortzeaz, besteak entrenatzeko lekua lortzeaz, badira taldearen giro ona mantentzeaz arduratzen direnak, "psikologo lanak egiten dituen ere ba dagoela entzun dut; estropadak ere antolatzen dituzte denon artean... Lana izanik, denok aurrera egiteko joera azpimarratu nahi nuke. Beteranoen arteko lehia hastear dagoela, kirol honetan egon ohi den lehia somatu daiteke, baina guztiaren gainetik baloreak daude taldearen oinarrian: konpromisoa, inplikazioa, laguntasuna, berdintasuna,

Halabeharrik ekarri nau berriro Fortuna Kirol Elkartera, MILA ESKER beraz FORTUNARI, Fortunako beteranoen arraun taldeari, eta zehazki bertako kide bakoitzari, nire eskerrik beroenak Amaia eta biok hain jator hartzeagatik.

Segi horrela!

Alfonso Díaz (Patroia), Leire Franganillo eta Matias Zubeldia.





ALQUILER Y VENTA

EL SONIDO DE LA BEHOBIA SAN SEBASTIÁN

- Congresos
- Sonido e imagen
- Traducción simultánea
- Pantallas de led
- D.J. Megafonía
- Ruedas de prensa



943 368 649

670 440 930



Dômes de Miage - Aiguille de Bionnassay - Mont Blanc zeharkaldia

- Jon San Sebastian eta Martin Garmendia -

Martinekin Mont Blancera igoera Dômes de Miage eta Aiguille de Bionnassayko gailurrak lotzen dituen gandor luzean zehar, eta Col du Dôme du Goûterrera gero, Goûterren aterpetik datorren Mont Blancoko tontorreraino igotzen den ohiko bidetik jarraitzeko.

Les Contamines-Montjoie herrian dagoen Tré la Tête aparkalekutik abiatuta Refuge des Conscrits-era igoko gara. Han igaroko dugu lehen gaua. Hurrengo egunean, Dômes de Miage zeharkatu ondoren, Refuge Durier txikian egingo dugu lo. Bi gau igaroko ditugu bertan altuerara hobeto egokitzeko. Azkenik, Aiguille de Bionnassayra igo eta izen bereko lepora jaitsi ondoren, Piton des Italiens-era igoko gara. Hemen, Rifugio Gonella italiarretik abiatzen den "Aita Santuaren Bidea" izenekoarekin bat egingo dugu. Itzulerarako, Goûterren ohiko bidea erabiliko dugu.

Ibilbide osoak lau egun irauten du eta AD zailtasunarekin dago sailkatuta. Aiguille de Bionnassayko mendebaldeko ertzaren eskaladan izango dugu zailtasun gehien, non harkaitz eta elur-tarteak gainditu behar diren (III+), ertz elurtsu estu batetik Col de Bionnassayraino jaisteko ondoren. Beste zati zail bat Dômes de Miagetik Col de Miagera egin beharreko jaitsierra da (rapel txiki bat egin behar da). Gainontzekoa ertz elurtuetan zehar ibiltzea da, funanbulistak bagina bezala sentsazioarekin batzuetan.

Ekainak 15, larunbata

8:30ean abiatu gara, Les Contamines herrian dagoen Tré la Tête aparkalekutik (1.100 m). Bidea ondo seinaleztatuta dago. Refuge les Conscritseko kartelak 6 orduko bidea markatzen du eta ahalegin handia egin beharko dugula aurreikusit dugu. Bidezidorrak gora egiten du basoan





*Dôme du Goûter gertu dugu.
Mont Blanc eskuinean.*

Hala ere, tarte ederrak baditu jarraitu dugun bideak. 15:00etarako Refuge des Conscritseko harrerara iritsi gara (2.614 m). Hurrengo egunean Refuge Durierera iritsi behar dugu eta bidea zein baldintzatan dagoen ba ote dakien galdetu diogu zaindariari. Azken elurtearen ondoren inork egin ez duela esan digu. Suspentsea mantentzen da...

Ekainak 16, igandea

5:00etarako hasi gara ibiltzen. Aterpetik altuera hartzen joan behar dugu Aiguille de la Berangère aldera doazen malda elurtuetatik. Bi ordu pasatxoan tontorrera (3.425 m) iritsi gara. Aterpean lo egin duten eta gu baino lehenago iritsi diren gainerako mendizaleek ez dute gorago igotzeko asmorik. Ez da oin-arrastorik ikusten Col de la Berangère aldera jaisten den ertzean, ez eta Dômes de Miageko mendebaldeko lehen tontorrera jarraitzen duen gandorrean ere.

Gure atzetik bi pertsona datozela ikusi dugu. Geroago jakingo dugu gure ibilbide bera egiten ari diren bi txekiar direla. Ertzetik jarraitu dugu harkaitzez eta elurrez osatutako tarte misto batetik, Frantziako IGNko 3.580 m-ko kotaraino iritsi arte, eta handik Durier aterpe txikia ikusi dugu. Hegoaldera, Glacier du Miage zeharkatzen duen ohiko bide italiarra ikus dezakegu, Aita Santuaren Bidea deritzona. Hasiera batean bide hori egin behar genuen guk ere, baina azken orduan, eguraldi onaren iragarpena ikusita, beste hau egitera animatu gara.

Hemendik aterpearen atzean altxatzen den Aiguille de Bionnassay mendi handiaren ikuspegia zoragarria da; hori da gure biharko helburua. Gailurretik jarraituz, 20 metroko rapel bat egin behar dugu. Ez dugu instalazioa aurkitu eta bat inprobisatu behar izan dugu. Ordua dela eta, elurra oso bigun dago eta ibiltzea nekagarri bihurtu da. Gainera,

zehar, etenik gabe. Ordu pare bat ondoren, atsedean txiki bat hartu dugu Tré la Têteko aterpera iristerakoan (1.970 m). Bideak ondo markatuta jarraitzen du, baina nahasmen bat dela eta, seinaleak utzi eta udako bidea hartu dugu. Tré la Tête-ko glaziarra zeharkatu behar izatea saihestu dugu bide horrekin, baina luzeagoa dela eta elurraren egoera kontuan hartuta, igoera-denbora luzatu zaigu.



Atzekaldera begirada: Piton des Italiens eta jaitsi dugun Aiguille de Bionnassayren elur-gandor zorrotza.



*Aiguille de Bionnassay eskalatzeko.
Durier babeslekutik egindako bidea (zirkulu gorria).*

Bakarrik gaude mendiaren beste aldetik Col de Berangère aldera jaisten hasten garenean. Tentsio-uneak pasa ditugu hasieran, baina gero jaitsiera xamurtu egin da. Gora egiten jarraitu behar dugu, Dômes de Miageren zeharkaldia hasteko (bost tontorreko lerroa, elurrezko gandor fin batek zeharkatua). Elurra biguntzen hasita dago eta aurrera egiteak gero eta gehiago kostatzen du. Mendebaldeko Dôme de Miagera (3.670 m) iristean ikusi dugu urrunean lehen aldiz gure helburu nagusia: Mont Blanc, emozio-unea... Jarraian, elur-gandorrek gaintu ditugu poliki-poliki, gora eta behera. Behin Col des Dômes de Miagera iritsita, Dômes de Miageko ekialdeko tontor nagusira eramango gaituen malda gogorra gaintzea besterik ez da geratzen.

badirudi ez garela inoiz aterpera iritsiko. Aldapa gogorrak gaintu behar ditugu etengabe, jaitsi besterik egin behar ez genuela uste genuenean. Azkenik, 17:30erako Refuge Durier xarmangarria iritsi gara. Bi txekiarrek eta Manon, zaindaria, bertan daude gure zain.

Ekainak 17, astelehena

Hurrengo egunerako ez dugu presarik. Meteoa eguraldioneko bigun iragartzen ditu, beraz, babesleku honetan beste gau bat igarotzea erabaki dugu eta Aiguille de Bionnassay igotzeko aprobetxatuko dugu, hobeto aklimatatzeko. Bide batez, mendebaldeko ertzaren eskalada-tartea aztertuko dugu, hurrengo egunean gaez igo behar dugu eta.



Refuge Durier. Merezitako atsedena Dômes de Miagen zeharkaldia bukatu ondoren (eskuinean).

Gosaldu ondoren, selfie bat egin dugu bostok eta txekiarrak Abri Vallotera joan dira, bertan lo egiteko asmoarekin; gu 6:00etarako oinez hasi gara. Hotza egiten du eta elurra primeran dago. Altuera hartzen joan behar da, aterpearen gainean dagoen elur gandorretik orratzerantz. Harkaitz-zati txiki bat gaudituz dugu eta hemendik aurrera datorkiguna ikusita, elkar lotzea erabaki dugu. Azken elur-ertz bat zeharkatu dugu mendebaldeko gandorraren harkaitz-zatira sartzeko. Txekiarrak nahiko goian daude jada.

Bilerak antolatu ditugu harkaitz-zati hau gaudituzko. Hogei metro inguruko lau luze egin ditugu tarte horrek izango duen ehun metroko desnibela igotzeko. Behin harkaitz-tartea gaudituta, oraindik beste ehun eta piko metroko desnibela dago,

elur gainean berriro, gailur-gandorrera heltzeko. 12:30erako tontorrera iritsi gara (4.052 m). Presarik gabe igo gara, egun osoa dugu altueran egoteko eta eguna bikaina da. Mont Blanceri begira egon gara etengabe, hortxe, zerumuga menderatzen... Ea bihar zorte pixka bat dugun.

Aterperako jaitsiera hasi dugu eta 18:00etarako iritsi gara. Elurraren baldintza kaxkarrek erritmoa moteltzea eragin digute. Hiru mendi-gidarik eta haien bezeroek konpainia egingo digute Durieren bigarren gau honetan.

Ekainak 18, asteartea

Hurrengo goizean Manonek 2:00etarako prestatu digu gosaria, eta behin gidariek

aterpea utzi eta gero, 3:45erako abiatu gara. Gaur gauean ez du izotzik egin eta, beraz, sufritea tokatzen da tarte ezagun honetan. Harkaitzaren zatian dauden baldintzek ez dute zerikusirik atzokoekin: pareta verglasez instalita dago eta hotz eta haize ikaragarria egiten du. Hotz handia pasa dugu eskaladan, baina azkenean, Aiguille de Bionnassayra iritsi gara, berriro. Ez du atzo bezain egun ona egiten, baina bistak ederrak dira oraindik. Gandor estutik hasi gara jaisten orain Col de Bionnassayrantz eta kontuz ibili gara bidean aurkitu ditugun elur-erlitzak inguratuzko. Behin lepoan (3.888 m.), Dôme du Goûteraino eramango gaituen elur-gandor luzea igo behar da, Piton des Italiens gaudituz, Italiako bidearekin bat egiten duen lekuan. Zein urrun dagoen oraindik Mont

Martin, Aiguille de Bionnassayren mendebaldeko ertzaren tarterik teknikoenean.





Blanceko gailurra... Atzera begiratzuz, zoragarri ikusten da Aiguille de Bionnassaytik ibilitako tartea. Azkenean Dôme du Goûter ikusi dugu, hori ere gainditu eta Col du Dômera iritsi gara 12:30ean (4.260 m.). Goûter aterpetik datorren eta tontorreraino jarraituko dugun bide zabalera iritsi gara. Azken helburua gero eta gertuago ikusten dugu: Abri Vallot (4.362 m) atzean utzi eta Les Bosses aldera jarraitu dugu. Azken metroak eta 16:25ean Mont Blanceko gailurrean gaude (4.810 m.). Bakarrik gaude bertan, besarkada luze bat eta ixiltasunean gelditzen gara ingurune zoragarriak disfrutatzen.

Refuge des Cosmiqueseraino jaistea da gure lehenengo asmoa, baina ordua dela eta, eta batez ere eguraldi-aldaketa ikusita, Refuge du Goûterrera (3.815 m) jaistea erabaki dugu. Jaitsieran elurra eta txingorra izan ditugu. Tarte luzeetan bidea jarraitzea ia ezinezkoa da, era bat estalita gelditu da, eta gps-ak erabiliz itsu-itsuan aurrera egin dugu. 20:00etarako iritsi gara

aterpera, ibiltzen hasi ginenetik 16 ordu igaro eta gero. Hodeiak desagertu egin dira, eta urrunetik goza dezakegu eraikin original honen ikuspegiak.

Ekainak 19, asteazkena

Hurrengo egunean 8:30ean hasi gara Les Houchesera jaisten, bi euskaldun mendi-gidari eta beraien bezeroekin batera. Bidean goazela ezin diogu atzo zeharkatu genuen Aiguille de Bionnassayko gandorra begiratzeari utzi. Bolerako zati arriskutsua pasa eta Tête Rousseko babeslekura iritsi gara. Atsedean pixka bat hartu, zerbait jan eta kranpoiak kendu ditugu: lau egunetan lo egiteko kendu ditugu bakarrik eta zorrozte on bat beharko dute. Altuera galtzen jarraitu

dugu, obretan dagoen Nid d'Aigle tren-geltokira iritsi arte. Trenbidea jarraituz, Col du Mont Lachat (2.077 m) mendatera iritsi gara eta balizatutako bidezidor polit batetik jarraitu dugu. 13:30erako Téléphérique Les Houches - Bellevue-ra iritsi gara azkenik, eta, jakina, ez gara gai izan baliabide mekaniko hau herrira hurbiltzeko erabiltzeari uko egiteko.

Les Houchetik autobusa hartu dugu geltokira joateko; obrak direla eta, ez dago trenik eta ordu pare bat itxaron ondoren, autobus batek St. Gervais les Bains-era eraman gaitu. Bukatzeko, Les Contamines herrira eraman gaituen beste autobus bat hartu, eta azkenik, kilometro luze bat oinez egin eta gero, kotxera iritsi gara. Nekatuta, zikin, baina oso pozik.

Les Bosseseko gandorra, Mont Blanceko gailurrea heltzeko azken metroak.



Lehenengoa, baina ez azkena

- Aize Otaño -

Gogoan dut egun hura... Ezin ahaztu sekula! Italiako Alpeetan ginen bostok; negua zen eta, nola ez, eskiatzeko (eta, aukera izanik, mendi-ibilbideak egiteko) asmotan joan ginen bertara. Primeran genbiltzan, egun bat eta beste bat, halako eski-estazio batean, gora eta behera, hura bai paradisua! Gailur izugarriak ziren, dena zuri-zuri, handitasun horretan zein txikia sentitzen zaren...

Gogoan dut egun hura... Gutako lau eskiz mendi-ibilbideak egiten hasiberriak ginen eta gogotsu ginen halako zerbait egiteko. Zorionekoak gu! Gure artean esperientzia izugarria duen emakumea baitzegoen. Gainera, eskarmentua izateaz gain, inguru hura oso ondo ezagutzen du. Horiek horrela, egun batean "eskiatzen ginela-, zera esan zigun: "Ikusten duzue mendi hori? 4000 metro ditu, mendi-ibilaldi bat egin nahi duzue? Zuen lehenengo 4000koa...". Gainerakook elkarri begiratu eta, bai, baiezkoa esan genion.

Gogoan dut egun hura... Normalean baino urduritasun handiagoarekin jaiki nintzen. Kotxez, eski-estaziora bidean,



Gailurreko ertzerara iritsiz.
Cervino Mendia begibistan.



Breithorn mendia gure parean.

zeruari begira aritu ginen. Batzuen zorionerako edo zoritxarrerako erabat lainotuta zegoen, elur-ekaitz bat izango ote genuen? Zer egin? Aurrera jarraitu eta gorago egiten zuen eguraldiaren arabera erabaki beharko genuen, zer erremedio! Heldu ginen eta geure asmoarekin aurrera egitea erabaki genuen.

Gogoan dut egun hura...Eski-estazioan ekin genion abenturari. Dena prest genuen: eskiak, larruak, kranpoiak, pioletak, sokak eta abarrak, eta, zer esanik ez, gailurrean botila-sagardo. Hasiara xamurra izan zen; teleaulki batzuk eta arraste bat hartu eta eskiak jantzita hasi ginen jomugara gerturatzen. Esan beharra dut, zorionez, eguraldiak hobera egin zuela; beraz, ez genuen inolako eragozpenik. Eguzkiak aurpegia eta gorputza goxatzen zigun, elurraren distirak itsutu. Pausoz pauso, gero eta gertuago ikusten genuen tontorrera igotzeko azken malkarra. Azkena bai, baina gogorrena ere bai!

Gogoan dut egun hura... Bat-batean hantxe ginen, azken txanparako prest.

Urrutitik txiki ikusten zen malda orain begi-bistan genuen, ez zen horren txikia! Ordurako nabaritzen hasiak ginen altueraren zantzuak (neke handiagoa, buruko mina...), baina, hala ere, hantxe ginen, igotzeko irrikan. Tontorrerako azken maldan, ordea, izotz ugari zegoela sumatzen zen, nola igo? Bik eskiekin igotzea erabaki zuten eta gainerakook, badaezpada ere, kranpoiak janzteko ordua zela erabaki genuen (bereziki, gutako biren eskarmentu faltagatik; ni nintzen horietako bat).

Gogoan dut egun hura... Material aldaketa egin eta ekin genion igoerari. Orduan izan genituen komeria gehien! Eskiz igo nahi izan zutenek aurrea hartu ziguten gainerako hiruei. Bide diagonal bat zeharkatu behar genuen, baina, aipatu dudan legez, izotz ugari zegoen eta, beherantz begiratuz gero, ai ama! lzu larria eragiten zuen... Hasi genuen bide bat baina, handik gutxira (izotzaren eta beldurraren eraginez), atzera egitea erabaki genuen. Orduan, zalantza piztu zitzaigun biri: igoko al dugu? Geure

**asfaltia**
Firmes y
Pavimentos



Hegoaldetik igotzen.

izuari aurre egitea eta beste bide batetik saiakera egitea erabaki genuen. Hori bai, elkarri sokaz lotu gintzaizkion hiruok. Aurrera jarraitu genuen; beldurra, nekea eta negarrak atzean utzi behar izan genituen...

Gogoan dut egun hura... Azken metroak! Gailurra begi-bistan genuen! Une hartarako bostok elkarrekin ginen. Bat, bi, hiru... Hamaika pauso eman genituen eta... Iritsi ginen! A ze poza gurea! Tontorrean ginen! 4000koa igo genuen! Zoragarria zen hura... Punta ugari ikusten ziren bertatik, mendikate zoragarriak, eta gu txiki izatetik handi izatera pasa ginen. Jaistea besterik ez zen falta. Sokaz lotuta igotakoa sokaz

Gailurrean azkenean.



lotuta jaitsi genuen, eta iritsi ginen eskiak utzi genituen lekura. Azken ezustekoa izan genuen une horretan: gutako batek eskiak jantzi behar zuenean, azken horrek irrist egin eta maldan behera jausten hasi zen! Eskiaren atzetik korrika ateratzeak ez zuen ezertarako balio izan... Geu guztion ezusterako, azken unean, trabatuta gelditu zen, eskerrak! Nola jaitsi bestela?

Gogoan dut egun hura... Jaitsia neketsua izan zen. Lehen eginda ginen eta emozio ugari pasata. Dena den, azken ahalegina egin genuen eta lortu genuen. Akordatzan naiz egun hartaz: Breithorn (4165 metro) igo genuen. Gogoan dut egun hura eta ez dut/dugu sekula ere ahantziko. Noiz igoko dugu hurrengoa?



AYESTARAN



DONOSTIÁN

31 DE AGOSTO, 16
☎ 943 429 390

NARRICA, 16
☎ 943 422 681

SAN JERONIMO, 17
☎ 943 420919

JOYERIA AYESTARAN CON EL DEPORTE EUSKALDUN

LOTU GURE SOKARA

Gorbeia
Aconcagua
Hiru Erregeen Mahaia
Everest
Txindoki
Orhi
Mont Blanc
Dhaulagiri
Kilimanjaro
Cervino



ZUK ERE **LAGUNDU DEZAKEZU**
EMMOAREKIN **EUSKAL HERRIKO**
MENDIZALETASUNAREN ONDAREAREN
KONTSERBAZIOAN

TÚ TAMBIÉN **PUEDES COLABORAR**
CON EMMOA **EN LA CONSERVACIÓN**
DEL PATRIMONIO **DEL MONTAÑISMO**
DE **EUSKAL HERRIA**



ÚNETE A LA CORDADA

LAGUNDU

Hilean 2€-ra iristen ez den ekarpena eginda, mendiari buruzko gune bat sortzen lagundu dezakezu, bai eta gure historia berreskuratzeko eta ezagutzera emateko abiatuta dugun lanean lagundu ere.

Dei egiten diegu Euskal Herriko mendizale guztiei, proiektu hau lagunduta, euren historiaren aldeko elkartasun-mendi handi bat egiten lagundu dezaten.

COLABORA

Por menos de 2€ al mes puedes contribuir a la creación de un espacio dedicado a la montaña y ayudarnos a continuar con la labor de recuperación y difusión de nuestro patrimonio.

Hacemos un llamamiento a todos los montañeros y montañeras para que su apoyo se convierta en una gran montaña de solidaridad con su propia historia.

ENTRA EN LA WEB Y DESCUBRE CÓMO PUEDES COLABORAR

*Fortuna KEak bat
egiten du
proiektuarekin.
El C.D Fortuna
se une al Proyecto*



www.emmoa.eus



EMMOA

Euskal Mendizaleatasunaren Museoa
Museo del Montañismo Vasco

Sin prisa pero sin pausa

- Josean Ruiz -

De cara a esta temporada 2019-20 se mantiene el equipo senior en 1ª División Vasca, con una mezcla de veteranía y juventud que está dando grandes alegrías. Las senior, que se proclamaron campeonas de la Copa de Euskadi, en este momento van segundas en la liga vasca de 2ª División Nacional - este año bajo la dirección de Natxo Sanchez y la

Una temporada más -y nos acercamos a la cuarentena-, la sección de voley ha seguido creciendo en número de equipos y en categorías.

cadete con experiencia, que por diversos motivos no pueden comprometerse al nivel de tres entrenamientos por semana, junto con nuevas incorporaciones de jugadoras, alguna provenientes de los cursillos UDA y que se están adaptando a nuestro deporte. El objetivo es mejorar y divertirse jugando en equipo.

- **Dos equipos cadetes**, organizados por niveles.

- Uno formado por jugadoras que la temporada pasada ya jugaban en el club, con la incorporación de otras nuevas con gran potencial físico y técnico-táctico, supervisado por Patxi Nájera.

- El segundo equipo, dirigido por Iara Lasterra y Paula Ibisate (de la plantilla del senior), lo forman jugadoras de nueva incorporación a la sección, que han tenido poca o nula relación con nuestro deporte, pero con gran ilusión y ganas de aprender y mejorar poco a poco, pues son jugadoras de primer año. Lo están haciendo cada día mejor.

- Por último, nos hemos animado a sacar un equipo infantil escolar, con chicas muy jóvenes, con gran ilusión y ganas de aprender, con el objetivo de disfrutar, hacer equipo y luchar por mejorar en cada entrenamiento y en cada partido. Es el futuro más 'lejano'. Este equipo está dirigido por Josean Ruiz.



Campeonas Copa Euskadi 2019.
Hernani

incombustible y alma mater del equipo Josune Loinaz (premio AFEDEGI 2019).

Continuamos con el equipo de 2ª División Vasca, bajo la dirección de Mikel Gay, equipo dedicado a la formación de las futuras jugadoras del senior. Formado por juveniles y cadetes con proyección, no se les pide resultados sino mejorar técnica y tácticamente, porque con trabajo y esfuerzo los resultados ya irán llegando.

Siguiendo con el trabajo de formación e iniciación al rendimiento, tenemos los equipos que toman parte en las ligas guipuzcoanas:

- **Equipo juvenil Liga Provincial**, bajo la dirección de Uxua Huizi (jugadora del equipo senior). En él encontramos jugadoras que vienen de la categoría

Equipo Juvenil provincial
© Jesus Mari Ayerbe



Haciendo memoria, podemos citar parte del palmarés conseguido por nuestros equipos y jugadoras, tanto en pista como en playa.

PISTA:

- *Campeonato de Euskadi Cadete 2019: TXAPELDUNAK*
- *Copa de España Cadete 2019 (Valladolid): 4º puesto*
- *Campeonato de Euskadi Juvenil 2019: 3er puesto*

PLAYA:

- *Campeonato de Euskadi infantil: TXAPELDUNAK*
- *Campeonato de Euskadi cadete: TXAPELDUNAK*
- *Campeonato de Euskadi de Clubes Cadete: TXAPELDUNAK*
- *Campeonato de España de Clubes Cadete (Galizia): 9º puesto*



Campeonato de España 2019. Ezaro



Las parejas fortunistas formadas por Leire Hoyos-Irati Sánchez, Luna Agüero-Noa Gay y Leire Fernández-Zoe López, han representado al País Vasco en los diferentes campeonatos de España de Autonomías. La sección sigue trabajando y llevando el nombre del Club Deportivo Fortuna con orgullo por todas las pistas

del norte de España, siendo respetadas y alabadas, no solo por el potencial deportivo, sino por el factor humano de todas nuestras deportistas, entrenadores y entrenadoras, tan importante a la hora de alcanzar metas. A todos y todas, gracias.



Campeonas Euskadi Juvenil 2019. Getxo



ORMA
INFRAESTRUCTURAS
PARA EVENTOS

T. 943 33 54 71
 ormadonostia.com



El mal estado de la mar estuvo a punto de suspender la prueba y obligó a cambiar el recorrido.

La Getaria viró a Pasaia

- Enrique Cifuentes -

La mar es siempre un escenario imprevisible y después de unos años de tranquilidad en la Getaria-Donostia, en 2019 se quebró la racha.

La mañana del domingo 11 de agosto comenzó con un diluvio de esos que asustan: 23 litros en un par de horas, a partir de las 7, con el viento del noroeste yendo a más y la mar empeorando. A las ocho y media, en el voladizo de La Concha y ante el local del club, el ambiente era algo tenso; más aún cuando dejó de llover y el mar –en la bahía- parecía más calmado. El peso de la responsabilidad hizo que el presidente del club planteara la suspensión de la prueba, cosa que quienes participaban en tabla de paddle surf ya habían decidido, descartando de plano su participación. Buscando soluciones para no irse a casa sin palear, se planteó entonces la doble alternativa de que salieran desde Getaria solo los de categoría *sprinter*, más dominadores de las dificultades marinas –lo que no fue bien visto por algunos ‘tradicionales’-, y otra que consistía en ir a la boya de Pasaia y volver.



Finalmente y con una hora de retraso, las embarcaciones salen de La Concha hacia la boya de Pasaia.

Finalmente hubo casi unanimidad en aceptar opción de Pasaia, en modalidad de competición y alargándola hasta la boya de recalada situada frente a la bocana del puerto; un recorrido total de unos 14 kilómetros que, al ser ida y vuelta, era más fácil de controlar y que –por la misma razón- permitía de inicio una retirada más factible a quien así lo decidiera. No faltó

quien discrepó airadamente –aunque fuese un único participante-, pero es algo que a menudo ocurre cuando se toman este tipo de decisiones. La cuestión final en estos casos es quién asume la responsabilidad ante posibles y cada vez más frecuentes reclamaciones si ocurre algo, y si es mejor pecar de prudencia o de osadía en mar abierto, sabiendo que hay

quien domina más y quien domina menos y conociendo de la dificultad de controlar a la treintena de pequeñas embarcaciones inscritas en un medio que puede volverse muy hostil.

La salida se retrasó a las once, para dar tiempo a quienes habían ido directamente de sus localidades de origen a Getaria, y a esa hora 22 piraguas –la gran mayoría del tipo *surf-ski*- y seis tablas se pusieron en marcha desde las boyas exteriores

Entre pequeñas montañas de agua que las hacían aparecer y desaparecer de la vista, las piraguas –sobre todo las veloces *surf-ski*- enfilaron con decisión hacia la boya amarilla del emisario submarino, el primero de los dos puntos de paso obligatorios del trayecto. La mayoría de palistas mostraban un dominio del oleaje –que sacudía por todas partes- bastante tranquilizador. Pese a ello, el estado de la mar y la densa neblina no permitían, una vez superado el primer punto de paso, la

No hubo esta vez montaje de arco y carpas en la arena y todo el habitual dispositivo de almuerzo y medallas se trasladó al voladizo, donde se vivió –a escala algo más reducida- el ambiente habitual posterior a la prueba, que ya en el aspecto deportivo fue dominada por Antton Araneta, del Pasaia Kayak, en K1 senior; Amaia Benavente, del mismo club, en K1 senior femenino; Oier Aizpurua, del Itxas Gain de Zumaia (el más rápido, en 1:11:56), en K1 Veteranos; Cristina Iraeta, del Atlético SS, en



Las piraguas rodean la boya de recalada de Pasaia, iniciando su regreso hacia La Concha.

del pasillo de embarque en La Concha, escoltadas por dos pequeños yates de pesca, tripulados respectivamente por personas voluntarias del Fortuna y del Bera Bera, a los que más tarde se uniría la embarcación de la Cruz Roja.

Una vez salidos de la bahía, la mar mostró sus cartas reales y cuatro piraguas decidieron dar media vuelta, mientras que las tres tablas hicieron lo propio a la altura de Monpas. Las nubes habían dado una pequeña tregua pero, a poco de empezar, una lluvia fina y espesa llegó acompañada de algo de viento –ahora del noreste, o sea, de cara- y de una niebla que convirtió la costa en un perfil gris y difuso. Por suerte la línea costera de Ulía estaba siempre próxima y, si bien propiciaba una ola de rebote molesta, fue referencia de rumbo imprescindible.

localización visual de la boya de recalada, distante solo una milla náutica, y los primeros palistas tuvieron que rectificar a babor con unas cuantas paladas de propina, pero finalmente todos tomaron la ciaboga correctamente, iniciando el regreso, ahora con la ola lateral de popa incordiando para fijar el rumbo, hacia la lejana y casi invisible referencia de Urgull. Las últimas embarcaciones en hacerlo fueron tres esquimales, muy separadas del resto, a las que escoltó de cerca la embarcación de Cruz Roja.

Desde la playa casi desierta se vio con alivio cómo las piraguas iban apareciendo, poco a poco, por la barra junto al Paseo Nuevo. Y a partir de ahí, la última dificultad fue la ola de playa, que había ido *in crescendo* y que propició algunos vuelcos bastante logrados en la llegada.

K1 Veteranas; Javier Lizancos, del Fortuna, en K1 Veteranos+50; y Maite Etxabe con Eñaut Aizpurua, del Itxas Gain, en K2 mixta. En clubes se impuso el Fortuna.

Parece claro que el pronóstico de mal tiempo para el día de la prueba y la fuerte lluvia con la que amaneció el día tuvieron algo o bastante que ver con la bajada de participación, pero es evidente que las pruebas de piraguas de mar –al menos en Euskadi- están perdiendo paulatinamente participantes.

Las tablas de paddle surf han contribuido a mantener el número de embarcaciones en la Getaria-Donostia, pero es una tendencia inquietante que no perdemos de vista y con la que seguramente habrá que bregar en próximas ediciones de la que sigue siendo la travesía de mar más antigua del Estado, acumulando 42 ediciones consecutivas.



Día del Club 2019

El sábado 14 de septiembre se celebró una nueva edición del Día del Club en la playa de La Concha.

Unos ciento treinta socios y socias deportistas del club acudieron a la cita en una mañana de sol espléndido. Después de la anual foto de grupo, las y los asistentes pudieron participar, en

un ambiente grato y distendido, en las diversas actividades organizadas por las secciones del club, como vóley, ajedrez, esgrima o paddle surf, especialmente dirigidas a los no integrantes de cada

sección. Luego el club les dispuso un tentempié en el voladizo, junto a nuestro local de la playa, dando así por concluida la fiesta de las secciones 2019.

Ibéricosdeluxe

Delicatessen



**ESPECIALISTAS
EN CORTE
DE JAMÓN
EN EVENTOS
(BODAS,
COMUNIONES...)**

<http://www.ibericosdeluxe.com/>

Narrika nº 31 Parte Vieja, DONOSTIA-SAN SEBASTIÁN, Tif.: 943 423 849



Helduen igerialdiko 1. txandakoak prest Kontxako hondartzan.

Laino artean giroa nagusi

- Aitor Burgoa -

Iragarpenak bete-betea bete ziren.

Azken urteetan sarri pasa den bezala Paseo Berriko zeharkaldia Kontxako Badia barruan os-patu zen aterkien azpian.

Goizeko 8:00etarako denok itsasora eta zerura begira geunden azken orduko aldaketaren baten zain, gau osoan zehar bezala haizea indartsua zen oraindik eta horrek itsasoa asko mugitu eta arrotzen zuen. Txalupa bat hartu eta zeharkaldiaren zirkuitua aztertzeraz atera ginen antolatzaileok. Panorama eskasa, olatuek sekulako indarra zeukaten, branka indartsu joaz.

Gauzak horrela, partehartzaileen segurtasuna bermatzeko, B plana aktibatzea erabaki genuen.

Di-da batean buiak lekuz aldatu eta dena prest utzi zen nagusien zeharkaldia badia barruan ospatzeko.

Goiztiarrenak gaztetxoak izan ziren 14 urtetik beherakoak, goizeko 11:00etan Nautikoko eskailera parean hasi behar zirenez, 09:00-ak baino lehen, ordu horretan irekitzen zen dortsal banaketa, bertan zeuden txanoa jartzeko prest.

Lehia polita espero zen, igerialdi motza baita, eta horrela izan zen. Hasieratik hiruko taldetxo bat osatu zen neska bat eta 2 mutilekoa. A ze besokada zaparrada, zipriztinak besterik ez ziren ikusten. Nor ote doa aurrena, ohi bezala neska? Aurten sorpresa emango al du mutilak? Lehia estuaren ondoren, Errioxako Sergio Nieto izan zen lehenengoa helmugako arku azpitik pasatzen. Sergiok dena eman behar izan zuen, bigarren sartu zen Irungo Asier Iguñiz soilik 4 segundotara iritsi bait zen. Eta jarraian, segundo gutxitara lehenengo neska sartu zen, Lasarteko Nora Imaz. Nora, aise gailendu zen nesketan, Fortunako (etxe) Udane Villoslada 30 segundotara iritsi bait zen.



Denera 60 neska-mutilek parte hartu zuten. Neskak nagusi, %52-a, eta mutilak %48-a.

Jarraian, nagusien txanda iritsi zen. Nahiz eta gutxi batzuk B plana onartu ez zuten, gehiengoak erabakia ontzat hartu zuen.

Bakoitzak bere txanoa hartu, besoetan dortsal zenbakiak margotu eta dena prest igerialdiaz disfrutatzen.

Froga hauetan ohikoa denez, badago jendea lehiatzera ateratzen dena, gutxiengo, baina gehiengo kirol polit honetaz gozatzeko asmoz murgiltzen da uretan.

Denera 505 parte-hartzaile bertaratu ziren Kontxako irteera. Emakumezkoak %22-a eta gizonetzkoak berriz %78-a.

POSTUA	MUTILETAN	NESKETAN
1.	Sergio Nieto (Errioxa)	Nora Imaz (Lasarte)
2.	Asier Iguñiz (Irun)	Udane Villoslada (Donostia)
3.	Luis Álvarez (Madril)	Izarne Gonzalez (Zizur-Nagusia)
4.	Kai Postigo (Donostia)	Juncal Cuñado (Donostia)
5.	Martin Iriondo (Orio)	Paola Bello (Zaragoza)

Hauek, berdintasuna bermatuz, bi irteera izan zituzten: batetik berdeak, 52 minutu baino gutxiagokoentzat eta bestetik laranja, 52 minutu edo gehiagokoak. Bi kasu hauetan berdin-berdin emakumezkoa edota gizonezkoa izan.

Hamabietarako bost minutu falta zirelarik, ohiko briefing-a egin genuen. Azken momentuko zalantzak argitu, buia kopurua argitu eta bakoitza bere lekura.

Irteerako marran, faboritoak segituan elkarren ondoan jarri ziren, inork ihes egin ez dezan.

Bapatean, ixiltasuna eskatu eta PR!!!!!!!!!!!!!!!!!!!! 12:00-ak puntuari berdeen taldea jada uretan zen. Ze irudi polita, infantiletan ikusi bezala, hemen ere zipriztina besterik ez zen ikusten. Dinbidanba ezker-eskubi ea buiara nor iritsi aurrena.

Igerialdia hasi bezain pronto, itsasoa nabarmen baretu zen badia barruan. Igerilariak Itsaso aldaketa hau eskertu zuten.

Hasieratik Errioxatik etorritako Marcos Godoy talde guztiaren buru jarri zen eta bukaeraraino postua mantendu zuen

sekulako erakustaldia emanez. Faborito asko zeuden, izen ospetsuak uretan, baina Marcos oso indartsu zegoen eta hala bermatu zuen.

Helmugan, bere denbora 34:59 izan zen eta bigarrenak, oraingoan Bidasoa XXI igeri taldeko Unai Arrubarrenak, minutu eta 40 segundo gehiago behar izan zituen. Podiuma Hernaniko Luis Goñik osatu zuen. Bitxikeria gisa aipatu behar dugu, oso gertu, 5. postuan Luisen semea sartu zela, Fortunako (etxeko) Enaitz Goñi, Zorionak!

Emakumezkoetan ere lehia gutxi izan genuen. Gizonezkoetan lez, hasieratik Burlatako Amaia Iriarte jo ta su hasi eta bukaeraraino bakar bakarrik igeri egin zuen. Bere denbora 37:40. Aipatzekoa da, Amaia, sailkapen orokorrean 7. geratu zela.

Bigarren Bilboko Itxaso Alonso iritsi zen eta gertu-gertu Burlatako Andrea Gomez. Podiumetik oso gertu geratu zen Fortunako, etxeko, June Ilzarbe. Bejondeizula. Hurrengoan podiumean seguru baietz.

Gure elkarteko, Fortunako, igerilari asko bertaratu ziren, jarraian aipatuko ditugunak:



Lan bikanaren ospakizuna

Eguneko protagonista gehiago izan ziren Kontxan, nola ez antolatzeke ezinbestekoak diren boluntarioak. Nahiz eta beti aipatzen ditugun, benetan, beraien artean sekulako talde lana ikusi zen eta hauek gabe, argi eduki, ezin dela horrelako ikuskizunik antolatu.

Mila esker denoi eta hurrengo urtean, bai 500-dik gorako partehartzaileak eta baita 50 inguruko boluntario taldea abuztuak 15ean han ikusi nahi zaituzteguna.



Heldueen 1. txandakoak uretar.



Helduen 2. txandakoak helmugaratzen.



Emakumezko nagusien podiuma.



Zipriztinetan aurrera.

INFANTILETAN:

Martina Abalos, Elene Aizarna, Maialen Ayestaran, Ana Barruso, Katia De La Fuente, Udane Villoslada, Jaime Abalos Beñat Ilzarbe.

NAGUSIETAN:

Aitana Abalos, Erika Amundarain, Malen Arrieta, Paula Del Barrio, June Ilzarbe, Miren Vazquez, Eneko Arana, Kristian Argarate, Iker Arbona, Alex Arrieta, Unai Arceche, Arkaitz Barriola, Jorge Blanquez, Jose Cachafeiro, Iker Chamorro, Patxi Erdocia, Iñaki Garcia, Borja Garcia, Enaitz Goñi, Adrian Guillenea, Igor Laniella, Jose Luzarraga, Alex Ojanguren, Ioseba Mateos, Aner Oyarzabal, Jose Vilariño.

POSTUA	MUTILETAN	NEKETAN
1.	Marcos Godoy (<i>Errioxa</i>)	Amaia Iriarte (<i>Burlata</i>)
2.	Unai Arrubarrena (<i>Hendaya</i>)	Itxaso Alonso (<i>Bilbo</i>)
3.	Luis Goñi (<i>Hernani</i>)	Andrea Gómez (<i>Burlata</i>)
4.	Gonzalo Vázquez (<i>Olaz</i>)	June Ilzarbe (<i>Donostia</i>)
5.	Enaitz Goñi (<i>Hernani</i>)	Nerea Alvite (<i>Oion</i>)



Gabonetako XIII. bainu tradizionala

Irteera ikusgarria izan zen
 📷 Arantza Rojo

- Saioa Arriola eta Txema Marimón -

Eguberri eguneko tradizioztat hartzen du jende askok jada Kontxapuzoia

Asteazkena, abenduak 25. Goizko 10:30. Kontxako hondartzako erlojuetan ohi baino mugimendu handiagoa ikusten da. Fortuna Kirol Elkarteko waterpolo sailak ohiko Kontxapuzoia antolatu du. Aurten, Gipuzkoako ATECE da ekimen horren onuraduna, Hartutako Kalte Zerebrala jasan duten pertsonen eta horien senideen bizi-kalitatea hobetzea helburu duen elkarte, hain zuzen ere.

Goizko 11:00etarako eta neguko eguzki bikainaren babespean, hortxe daude parte-hartzaileak goiztiarrenak, izena emateko edo klubaren webgunearen bidez egindako izen-ematea berresteko.

Aurten 135 lagunek eman dute izena Interneten bidez; izan ere, gero eta jende gehiagok ematen du izena bide hori erabiliz. Parte-hartzeen kopurua gorantz joan da uretan sartzeko ordua hurbildu ahala. Aurreko urteetan ez bezala, izen-emateak egiaztatzen edo egiten lagundu dutenek ez dute atsedean hartzeko astirik izan. Jende-ilarak amaigabea dirudi, baina uretan murgiltzeko ordua heldu denerako mundu guztia dago izena emanda. Webgunearen bidez egindako inskripzioez gain, beste 107 lagunek eman dute izena egunean bertan. Guztira, 242 parte-hartzaile, beraz. Orain arteko ediziorik jendetsuena, zalantzarik gabe! Batzuek neoprenoa erabiltzea erabaki dute, baina gehienak bainujantzi hutsean joan dira, egun eguzkitsua ikusita ura epel

zegoelakoan. Oker galanta! Urtero bezain hotz dago, 15 bat graduan. Baina ausardia eta helburu solidarioak babesteko gogoa dira honelako ekitaldietan parte hartzen dutenen ezaugarriak. Horregatik, kokildu gabe, eguerdiko hamabietan abiatu dira korrika itsasora. Aurpegiatiko hotz-adierazpenak ohikoak izaten dira uretaratzeko orduan. Halere, ia inork ez du buelta erdia eman. Guztiak bat datoz hau esatean: behin hasierako shocka igarota, hotza bigarren maila batera pasatzen da; gainera, ibilbidea ez da zaila eta, iritsitakoan, suspertu egiten dira parte-hartzaileak, Londres hotelean hartzen duten salda beroari esker. Nahiz

eta ekitaldia solidarioa eta ez-lehiakorra izan, bi parte-hartzailek gainerakoek baino lehenago zeharkatzen dute helmuga beti (gainerakoek baino hotz handiagoa sentitzen dutelako ere izan daiteke). Aurtengoan, Erika Amundarain eta Joseba Ramírez izan dira lehenak. Beti bezala, ibilbidea ezin hobeto seinalatzatu dute Fernando Ibarretak eta Paddle Surf sailako laguntzaileek.

Fortuna Kirol Elkartetik eskerrak eman nahi dizkiegu parte-hartzaileei, enpresa laguntzaileei eta boluntarioei, hala nola DYAr eta 13 sorosleei. Azken horietatik gehienak Pasaiako Gurutze Gorriko kideak dira, eta txano imitaezin batzuk daramatzate buruan. Aurtengoan, bi kide gehiagoren (bi txakurren) laguntza izan dute, ekitaldia seguruagoa izateko. Aurtengo 13. edizioan 3.000 eurotik gora bildu dira, inskripzioak eta Toldo 0 kontuan hartuta. Eskerrik asko! Zain gaituzue 2020ko edizioan!



Ana Iturriza

XIII tradicional baño en Navidad

Eran las 10:30 de la mañana del miércoles 25 de diciembre y en los relojes de la playa de la Concha se veía más movimiento de lo normal. La sección de waterpolo del CD Fortuna organizaba el tradicional Kontxapuzon este año a favor de ATECE Guipúzcoa, asociación cuyo objetivo es el de mejorar la calidad de vida de las personas que han sufrido un Daño Cerebral Adquirido y la de sus familiares.

Para las 11 de la mañana, y con un magnífico sol de invierno, los y las participantes que más habían madrugado ya estaban allí para apuntarse o para confirmar la inscripción hecha a través de la web del club.

Este año unas 135 personas se apuntaron vía Internet y cada vez más gente se apunta mediante este sistema. La participación fue subiendo a medida que se acercaba la hora de meterse al agua. A diferencia de otros años esta edición, quienes ayudan a comprobar y/o realizar las inscripciones no tuvieron tiempo para descansar. La cola de gente parecía interminable pero para la hora del baño todo el mundo estaba inscrito. Aparte de las inscripciones a través de la web se apuntaron ese día otras 107 personas, haciendo un total de 242 participantes. ¡Sin duda la edición más numerosa hasta el momento!

Había gente que decidía hacer uso del neopreno, pero la mayoría iba solo con el bañador pensando que con el sol que lucía el agua estaría templada. ¡Gran equivocación! Estaba tan fría como casi todos los años, a unos 15 grados! Pero la



El equipo de waterpolo en su pose anual al salir del agua.  Ana Iturriza

Ya son muchas personas las que ven el Kontxapuzon como algo tradicional del día de Navidad

valentía y las ganas de apoyar las causas solidarias son características de quienes participan en estos eventos y no se amedrentaron y a las doce del mediodía se lanzaron corriendo al mar. Algo que nunca falla son las expresiones de frío en las caras en el momento de entrar en el agua, aunque casi nadie se da la vuelta. Todos y todas coinciden en que una vez pasado el shock inicial el frío pasa a segundo plano, el recorrido es asequible y finalmente se recuperan sensaciones gracias al caldo del Hotel de Londres que se toma en la llegada. Aunque el evento es solidario y no competitivo, siempre hay dos que cruzan la meta antes que el resto (igual

porque son los que más frío tienen) y este año fueron Erika Amundarain y Joseba Ramírez. Como siempre el recorrido estuvo perfectamente señalado por Fernando Ibarreta y sus ayudantes de la sección de Paddle Surf.

Desde el C.D Fortuna se quiere agradecer a todas las personas que participan, a las empresas colaboradoras, al voluntariado como la DYA y el grupo de 13 socorristas, la mayoría miembros de la Cruz Roja de Pasaia, que, enfundados en unos gorros inimitables y este año, con dos nuevos miembros – caninos- en el grupo hicieron que el evento fuera más seguro para todos y todas. La recaudación entre inscripciones y Toldo 0 esta 13ª edición ha sido superior a los 3.000 euros. Muchas gracias.

¡Os esperamos en la edición 2020!



El equipo de socorristas con alguna "nueva" incorporación  Ana Iturriza.

izadi

CAMP BASE

TU TIENDA OUTDOOR Y MONTAÑA

Material, calzado y ropa de la mejor calidad para disfrutar de la montaña

ARCTERYX

SALOMON

MILLET

THE NORTH FACE

PETZL

TERNUA

ROPA

CALZADO

ESCALADA

ACAMPADA

ESQUI

TRAIL RUNNING



Precios especiales para los socios de Fortuna

NO TE PIERDAS LOS CURSOS
Y CHARLAS QUE IMPARTIMOS EN NUESTRA TIENDA
más info en guias.campbase.es

Calle Usandizaka kalea, 18, Donosti / 94 329 35 20 / infoizadi@campbase.es

CAMP BASE

@izadicampbase   

Temporada de cambios

- Koldo Gallego -

Tras una larga y dura temporada en la que la sección contó con equipos en las categorías ESCOLAR, CADETE MIXTO, JUVENIL y SENIOR, podemos decir que el resultado general, a pesar de diferentes altibajos en aspectos quizás ajenos al deporte, fue positivo.

En concreto el equipo SENIOR, un equipo joven pero que ya atesora una gran experiencia, tiró de casta y, tras haber vuelto a la máxima categoría del waterpolo en Euskal Herria y haber pasado un año en la de plata, consiguieron un meritorio 4º puesto en la clasificación final.



Equipo cadete mixto 19/20.
📷 Koldo



Los senior tras victoria al Donosti.
📷 Eider

